

Apirilak 21, ostirala

## SWEENEY

TALDEA: Eromen Produksioak

LEKUA: Frontoia

ORDUA: 22:00

\*SARRERA: 5€



Benjamin Barker, bere sorterrira itzuli da hainbat urteren ondoren, iraganeko kontu ilunen mendeku bila; emakume ikusezinak hegalik gabe askatasun bila dabilta; hauek eta beste hainbat pertsonaiek argituko dituzte Londres beltzeko gertaerak. Stephen Sondheim-en Sweeney Todd musical ezagunean oinarritutako antzezlan da. Zuzeneko musikak eta erritmo desberdinak eramango dituzte ikusleak ezusteko amaierara.

Apirilak 22, larunbata

## FRANCOREN BILOBARI GUTUNA

TALDEA: Artedrama, Dejabu Panpin Labo-  
rategia, Le Petit Théâtre de Pain


LEKUA: Frontoia ORDUA: 22:00 \*SARRERA: 5€



lñakik hamar urte eta leuzemia ditu. Joxanek berrogeita sei urte eta gerra zibileko obus baten txatala buruan. Etorkizun bideragarrik ez duen ospitalean iragana eta oraina kateatzen dira Migel eta Kristina medikuen ametsetan. Itxarongeletan sekula agertzen ez diren pazienteen izen zerrendak entzuten dira ordena alfabetikoan eta Carmen Martinez-Bordiuk betetzen du bihotzeko aldizkari maiztuaren azala. Iraun beharraren gaitzak jotako komunitate baten hezurren eta gezurren erradiografia traumatologikoa da Francoren Bilobari Gutuna.

# AULESTIN

apirilaren  
17tik 22ra



# XII. ARTE DRAMA TOPAKETAK

Antolatzaileak



Aulestiko Udala



ArteDrama

Laguntzaileak



Bizkaia  
foru aldundia  
diputación foral





Apirilak 17, astelehena

Apirilak 18, asteartea

Apirilak 18, asteartea

Apirilak 19, asteazkena

Apirilak 20, osteguna

Apirilak 20, osteguna

## HOZKAILUA

TALDEA: Huts Teatroa  
LEKUA: Udal aretoa  
ORDUA: 21:00

## BIHOTZ SALATARIA

TALDEA: Atx Teatroa  
LEKUA: Udal aretoa  
ORDUA: 21:00

## ELTXOAK

TALDEA: Zanzara  
LEKUA: Udal aretoa  
ORDUA: 21:30

## ATTE HIL AURRETIK

TALDEA: Beheko Larraine  
LEKUA: Udal aretoa  
ORDUA: 21:00

## JADANIK HILDA

TALDEA: Parasite Kolektiboa  
LEKUA: Udal aretoa  
ORDUA: 21:00

## LAPUR MINAK

TALDEA: Cía Tornado  
LEKUA: Udaletxeko ataria  
ORDUA: 21:30



Maite eta Karlos herririk herri dabilta hozkailu zahar batekin. Hozkailuaren barruan, garagardo lata eta hestekien artean, Londonetik dakarten Jimmy lagunaren hilotza daramate. Zin egin baitzioten Jimmyri bere jaioterrian lur emango ziotela. Nongoa zen galdetzea ahaztu zuten ordea. Zinezko adiskidantza bat azaleratuko duen ezinezko bilaketa baten istorioa da Hozkailua.

Zoroaren argudioak, psikopatearen perfekzionismoa, hiltzaile zuhurra eta zorrotza. Delito ikaragarriena, zitalena... babesbako agurea akabatzen dau, zatitu eta bere gorpuzkiak ezkutatu. Polizia ikertzera dator, ohiuren bat entzutean norbaitek abisua emon daualako. Hiltzaileak, bere zereginaren perfekzionismoaz harro, etxe barrura gonbidatu, dana ordenean dagoala erakutsi eta eurekaz batera jesartzen da lasai lasai solasean.

Garaipena dastatzen daularik, bere buru barruan, agurearen bihotz-taupadak entzuten hasten da, hasikeran astiro astiro baina gero jasanezin bihurtuko dira. Errealak edo imaginarioak diran taupada misterioitsu honek bere onetik atara eta bere delitua aitortzera eroango dabe.

Istorio honetako protagonistak gorroto ditu eltxoak. Nazkatuta dago beti berari hurbiltzen zaizkiolako. Baina konturatuko da ez direla eltxoak odola xurgatzen dioten bakarrak. Egoera horri aurre egiteko indarrak bildu eta super-heroi bihurtuko da.

Maxusek bere biloba Aneri gauero ipuin bera kontatzen zion. Bi hilabete egin ditu ordea istorio hori azkenekoz entzun zuenetik. Ihauteriak hemen dira berriz eta urtero bezala Erremosenea baserriko harategian ospatzeko erabakia hartuko du Anek. Bere amonak utzitako hutsuneak eta ihauteriek sakonki zirikatuko dute Ane, oheratzean entzuten zuen ipuin hark ezkutuan zeraman benetako esanahia agerian utziz.

Dena hasten da Garazik sabelean duen ebakia taupadaka hasten denean, orduan gogoratzen du. Ospitalarekin gogoratzen da, baita salomeren bizitzaz eta laguntzaz, jadanik hilda duen amona.

Orain Salome da bere laguntza behar duena. Garazik beregana bidaiatzea erabakitzen du eta berari dagokion paktuaren aldea betetzea.

2017ko emakume batek 1957ko emakume bat lagundu ahal du? Jadanik Hilda formatu txikiko antzerki-dantza pieza da, jatorrizko testua eta musika bidaiagarria duena. Protagonistaren bidaia eta bere amonarekin izango duen topaketa kontatzeko antzezpena eta koreografia erabiltzen dituelarik.

Pako auzoko tipo zintzoa da. Denek maite dute. Orain, gainera, loterian saritua gertatu da, 6 milioi euro! Eta guztia oparitzea erabaki du. Baina bere lagun minak bere bihotz-zabaltasunaz nazkatuta daude eta diruarentzako oso bestelako planak daukate.

Nola moldatuko dira boletorekin gordelekura sartzeko? Lortuko dute saritutako boletoa eskuratzea? Ezin dugu bukaera salatu, baina ziur egon zaitezketek: lapurreta honek ustekabeko bukaera izango du.

Saritutako boletoa bat, ergel bi gutxienez, amodiozko triangelu bat eta lau lapur min... hau zoriona!